

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Bergarako Udal Euskaltegirako euskara-irakasle bat kontratatzeko eta lan-poltsa osatzeko presazko deialdia arautuko duten oinarriak

=====

1.- Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da Bergarako Udal Euskaltegirako euskara-irakaslea kontratatzea lehiaketa-oposizio bidez eta txanda librean. Aukeratutako hautagaiari errelebo-kontratua egingo zaio, 2020ko urriaren 4ra artekoa, zatikako erretiroa eskatu duen Udal Euskaltegiko langile bat ordezkatzeko.

Lanpostua A2 sailkapen-mailakoa da, eta lan-hitzarmenaren 14. mailari dagokion soldata izango du. Halaber, C2 euskara-maila dagokio, derrigorrezkoa.

Lanegunak eta ordutegia euskaltegiak urtean-urtean finkatutakoak izango dira, beti ere lanpostuaren izaera eta premien arabera.

Bestalde, lan-poltsa egingo da oposizio aldiko lehen eta bigarren ariketak gainditzen dituztenekin, Bergarako Udal Euskaltegiak dituen aldi baterako kontratazio-premiei erantzuteko. 2018ko abuztuaren 31ra arteko hasierako balioa izango du; urtez urte luzatu ahal izango da eta, gehienez ere, lau luzapen onartu ahal izango dira.

2.- Betekizunak

- a) Euskara-klaseak ematea Udal Euskaltegian edo, antolaketaren eta sortutako talde eta premien arabera, erabaki daitekeen edozein tokitan.
- b) Eskolak programatu eta prestatzea, horretarako egokienak diren irizpide pedagogikoen arabera.
- c) Ikasleen ebaluaketa jarraitua egitea eta garaian garaiko ebaluaketa-txosten eta abarrak egitea.
- d) Ikasturtearen antolaketan parte hartzea.
- e) Material didaktikoa moldatu, sortu, antolatu eta sailkatzea.
- f) Irakasle-batzaren bilera, koordinazio- eta ebaluazio-bilera eta bilera pedagogikoetan parte hartzea.
- g) Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea.
- h) Euskaltegiaren curriculum proiektuaren osaketan parte hartzea.
- i) Lanposturako gaitasuna mantentzea, profesionalentzako ikastaroetan parte hartuz.
- j) Euskaltegiko jardunarekin zerikusia duten arloen ardura banaketan parte hartzea.
- k) Bere prestakuntzari eta lan-kategoriari lotuta agintzen zaion beste edozein eginkizun.

3.- Izangaiek bete beharrekoak

Onartuak izateko eta, hala badagokie, neurketan parte hartzeko, ondorengo baldintzak bete beharko dituzte hautagaiek:

- a) Europar Batasuneko kide diren estatuetak baten herritartasuna izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Era berean, parte hartu ahal izango du Europar Batasuneko kide diren estatuetak herritarren ezkontideak, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita bere

ondorengoak eta bere ezkontidearenak ere, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, edo adin horretatik gorakoak, baina bere pentzuan bizi direnak.

Halaber, parte hartu ahal izango dute Espainiako estatuan bizi eta aurreko paragrafoetan sartu gabe dauden atzerritarrek. Hauek aukeratuko balira, kontratuaren objektu den jarduera burutzeko administrazioaren baimena dutela frogatu beharko lukete, aipatutako kontratua egin baino lehen.

- b) 16 urte beteak izatea.
- c) Lanpostuaren beraren eginkizunak normal betetzea galaraziko lukeen eritasunik eta tatxa fisikorik nahiz psikikorik ez edukitzea. Egoera hori dagokion unean egiaztatu beharko da enpresako medikuntza-zerbitzuak bakoitzari egingo dion osasun-azterketaren bidez.
- d) Diziplinazko espediente delako medio, Estatuko, Autonomi Erkidegoko nahiz udal erakunde menpeko lanetik banandua ez izana, ezta herri-eginkizunetan aritzeko ere.
- e) Indarrean dagoen araudiaren arabera legezko ezgaitasun- edo bateraezintasun-kasuren baten ez egotea, beti ere legeak ematen duen aukeratzeko eskubidea alde batera utzita.
- f) Martxoaren 24ko 1/1995 errege Dekretu legegilearen 12. artikuluko 7. atalean jasotako egoeran egotea, hau da, langabezian egotea edo epe jakinerako kontratua izatea Bergarako Udal Euskaltegiarekin.
- g) Unibertsitateko diplomaturaren, lizentziaturaren edo graduaren jabe izatea. Halaber, onartu egingo dira 1984ko ekainaren 8ko Aginduak araututako homologazio probak gainditu zituzten irakasleak.
- h) Euskarako C2 maila izatea, Eusko Jaurlaritzaren 48/2009 Dekretuan zehaztutako edozein titulu delako ere. Orobat, ontzat hartuko dira Eusko Jaurlaritzaren 47/2012 Dekretuaren 2. xedapen gehigarriaren arabera C2 egiaztatzeetik salbuesten duten titulazioak. Halere, bi dekretuon arabera C1 maila egiaztatuta edota egiaztatzeetik salbuetsita dauden pertsonak ere onartuko dira.

Baldintzak eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean bete eta kontratua egin arte mantendu beharko dira. f) azpiatalean ezartzen direnei dagokienez, berriz, kontratatzeke unean kreditatu beharko dira, eta bete ezean, izangaiak ez du errelebo-kontratua betetzeko aukerarik izango; bai, ordea, lan-poltsa osatzekoa, aurrerantzean Euskaltegian sor litezkeen irakasle-premiak betetzeko.

4.- Eskabideak

Eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan egingo dira. Eredua Bergarako Udal Euskaltegi bulegoan izango da eskuragai, eta oinarri hauei erantsirik doa. Bergarako Udalaren webgunean (<http://www.bergara.eus/eu/Udala/Antolaketa/Euskaltegia>) ere eskuratu liteke.

Lehiaketa-oposizioan parte hartzeko eskabideak Bergarako Udal Euskaltegia Fundazio Publikoko lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta ondoko baldintza hauek bete beharko dira onartuak izan daitezen:

- a) Hirugarren oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiak, beti ere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkiola.
- b) Eskabidearekin batera, ondoko agiriok erantsiko dituzte:
 - Nortasun-agiriaren fotokopia edo agiri baliokidea, hautagaia Europar Batasuneko beste estatu batekoa balitz.
 - Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia konpultsatua.
 - Eskatutako euskara maila lortua duela egiaztatzen duen jatorrizko dokumentua edota konpultsatutako fotokopia. Ikasketak direla eta, euskara-maila egiaztatzeetik salbuetsita egonez gero, berriz, salbuespena gauzatzeko ziurtagiria, dagokion unibertsitateak emana.

- Eskabidean adierazitako merezimenduak egiaztatuko dituzten jatorrizko agiriak edota konpultsatutako kopiak, lehiaketaren fasean baloratuak izan daitezzen.

Laneko esperientzia HABEk egindako ziurtagirien bidez egiaztatu beharko da.

Prestakuntza osagarriari buruzko merezimendua egiaztatzeko agirian, haren iraupena zehaztu beharko du. Horrela izan ezean, Epaimahaiaren esku geratuko da merezimendu hori baloratu edo ez.

Eskabideak Bergarako Udal Euskaltegian aurkeztu beharko dira, behar bezala beteta, irailaren 1etik irailaren 8ko arratsaldeko ordu biak bitartean. Data honetako posta-zigilua duten eskaera-orriak ere onartuko dira. Era berean, 30/1992 Legearen (azaroaren 26ko Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen) 38.4 artikuluan adierazitako administrazio publikoetako erregistroetan ere aurkeztu ahal izango dira. Bergarako Udal Euskaltegia Fundazio Publikoaren lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta, eskabideak aurkezteko epearen barruan, dagokion funtzionarioak data eta zigilua jarrita eduki beharko dute.

5.- Izangaiak onartzea

Onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrenda Bergarako Udal Euskaltegiko iragarki taulan nahiz Bergarako Udalaren webgunean (<http://www.bergara.eus/eu/Udala/Antolaketa/Euskaltegia>) jarriko da irailaren 12an. Bi laneguneko epea emango da erreklamazioak egiteko, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 71. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Behin-behineko zerrenda, besterik gabe, behin betikotzat joko da erreklamaziorik ez badago. Halakorik badago, berriz, beste ebazpen baten bidez onartu edo baztertuko dira. Ebazpen horren bidez, behin betiko zerrenda onetsiko du Bergarako Udal Euskaltegia Fundazio Publikoak eta adierazitako moduan argitaratuko.

Azken erabaki horren aurka, Administrazioarekiko auzien errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Herriko Justiziako Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzietarako Salan; eta, horretarako, bi hilabeteko epea izango da onartuen eta baztertuen zerrenda Udal Euskaltegiko iragarki taulan argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Hala ere, hori ez da eragozpen izango, inork bidezkotzat jotzen badu, beste edozein errekurtsu aurkez dezan.

Aldez aurretik, eta hala nahi izanez gero, birjarpen-errekurtsua jarri ahal izango da hilabeteko epean.

6.- Epaimahaia

Epaimahaia Udal Euskaltegiko lehendakariak erabakiko dituen kideek osatuko dute, eta inoiz ez dira izango bost baino gutxiago. Langileen ordezkariak izendatutako batek ere hartuko du parte. Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izen-zerrenda Euskaltegiaren iragarki-taulan eta Bergarako Udalaren web-orrian argitaratuko da, onartuen eta baztertuen zerrendekin batera, behin lehendakariak izendatuta.

Epaimahaiak, bidezko baderitzo, aholkulari adituen laguntza eska dezake.

Epaimahaiakideek ezingo dute esku hartu, eta Bergarako Udal Euskaltegia Fundazio Publikoaren lehendakariari horren berri emango diote, baldin eta Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 28. artikuluan aurreikusitako egoeretakoren bat gertatzen bada. Era berean, izangaiek ezetsi ahal izango dituzte aipatu legearen 29. artikulua arabera.

Epaimahaia osatzen duten kideen erdiek gutxienez izan beharko dute lanpostura sartzeko eskatzen den jakintza arlo berari dagokion titulazioa, eta guztiek maila akademiko berekoa edo goragokoa.

Epaimahaiaren jardunbideak une oro jarraituko dio Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak agintzen duenari, eta ezingo da eratu eta aritu kide titular edo ordezkotako hiru (3) behintzat biltzen ez badira.

Epaimahaikide guztiek izango dute hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidea, idazkariak izan ezik, zeinak hitza baino ez du izango. Boto-berdinketa egonez gero, Epaimahaiaren lehendakariaren kalitatezko botoa erabiliko da berdinketa hausteko.

7. Oposizio aldiko ariketak

Behin-behineko onartuen zerrendarekin batera argitaratuko da lehenengo ariketa egiteko deialdia, eta han adieraziko da azterketa zein egun, ordu eta tokitan egingo den. Ondorengo deialdiak aditzera emateko egoki deritzon moduan iragarriko ditu Epaimahaiak.

Oposizio aldian ondoko ariketa hauek egingo dira:

— Lehen ariketa:

IDATZIA. Nahitaezkoa eta baztertzalea. Idatzizko ariketa hau egin beharko da Epaimahaiak zehaztutako gehieneko epean. Izangaiek eranskinean jasotako gaitan oinarritutako iritzi-artikulu bat idatzi beharko dute helduen euskalduntzearen metodologia kontuan hartuta.

Idatzia ebaluatzean, kontuan hartuko da:

- Testuinguruarekiko eta testuarekiko egokitasuna.
- Koherentzia eta kohesioa.
- Hizkuntza-baliabideen zuzentasuna eta aberastasuna.

Proba honek 50 puntuko balioa izango du, eta, gutxienez 25 puntuko emaitza lortu beharko da gainditzeko.

- Bigarren ariketa:

ELKARRIZKETA pertsonala –derrigorrezkoa eta baztertzalea–, izangaiek lanpostuaren ezaugarrietara zein neurritan egokitzen diren egiaztatzeko. Orik 10era bitartean baloratuko da. Epaimahaiak egoki irizten dionean adieraziko du ariketa gainditzeko zenbat puntu ateratu beharko diren.

— Hirugarren ariketa:

Derrigorrezkoa eta baztertzalea. Eskatutako euskara-maila (C2) egiaztatzeko, HAEK proposatutako idatzizko eta ahozko proba batzuk egitean datza. «Gai» edo «Ez-gai» kalifikatuko da.

Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 24ko 48/2009 Dekretuak, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitze Dekretua aldatzen duenak, zehaztutakoari jarraituz, dagokion erakundeak emandako egiaztagiria aurkezten dutenek ez dute ariketa hau egin beharrik izango, ezta Eusko Jaurlaritzaren 47/2012 Dekretuaren 2. xedapen gehigarriaren arabera C2 egiaztatzetik salbuetsita daudenek ere.

Lehenengo eta bigarren ariketak gaindituta, hirugarrena gainditzeko ez duten izangaiek lan-poltsaren zerrenda osagarria osatuko dute, beti ere C2 euskara-maila egiaztatua dutenen eta egiaztatzeetik salbuetsita dauden ondoen, eta Euskaltegiaren behin-behineko lan-premiei erantzun ahalko diete. Halere, ez dute errelebo-kontratua betetzeko aukerarik izango.

8. Lehiaketa aldia

Epaimahaiak ondoko merezimendu hauek balioztatuko ditu, baldin eta, laugarren oinarriko b) atalean xedatutakoaren arabera, eskabidean adieraziak eta agiri bidez egiaztatuak izan badira, eta, beti ere, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna kontuan hartuz:

a) Prestakuntza (gehienez, 11 puntu)

- Irakasle-ikasketak Euskal Filologia alorrean, 2 puntu. Ez da kontuan hartuko Euskal Filologiako lizentziatura edo gradua ere aurkeztuz gero.

- Gradua edo lizentziatura Euskal Filologia, Psikopedagogia edo Pedagogia alorrean, 3 puntu.
- Masterra Euskal Filologia edota Hizkuntzen ikas-irakaskuntza alorrean, 1 puntu.
- Doktoregoa Euskal Filologia edota Hizkuntzen ikas-irakaskuntza alorrean, 1 puntu.
- Hizkuntzen ikas-irakaskuntza edota didaktika-pedagogiarekin zerikusi zuzena duten ikastaroengatik, 30 orduko multzo bakoitzeko, 0'15 puntu.
- HABEren C2ko irakasleen gaikuntza-ikastaroa: 1 puntu.
- Ofimatikan, egiaztatutako maila aurreratu bakoitzeko, 0'2 puntu.
- Moodle edota antzeko LMSei buruzko ikastaroak, ikas-materiak edo programen diseinua on-line, ikas-komunitate birtualen dinamizazioa eta horrelako edukiekin zerikusi zuzena duten ikastaroengatik, 30 ordu bakoitzeko, 0'15 puntu.

b) Argitalpenak (gehienez, 1 puntu)

- Glotodidaktika edota euskalduntze-alfabetatze gaiei buruzko argitalpenengatik, 10 orrialdeko 0'1 puntu.

c) Esperientzia (gehienez, 13 puntu)

- Euskaltegiko irakasle-lanetan emandako 330 orduko puntu bat, eta hortik gorako orduak proportzionalki kontatuko dira. Esperientzia hori HABEk egiaztaturik aurkeztu beharko da dagokion erakundean.

9. Oposizio aldia garatzeko era

Epaimahaiak, hala erabakiz gero, alda dezake 7. oinarrian adierazitako ariketen hurrenkera, eta egun berean proba bat baino gehiago egitea ere erabaki dezake.

Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo da. Epaimahaiak ariketa egiteko jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren izangaiak –baita ezinbesteko arrazoiengatik bada ere– hauta-prozesutik kanpo geratuko dira erabat.

Gainditu beharreko ariketa bakoitza burutu ondoren, Epaimahaiaren erabakiz, Euskaltegiko iragarki-taulan eta Bergarako Udalaren webgunean emango dira argitara emaitzak.

10. Epaimahaiaren proposamena

Izangai bakoitzak bi faseetan lortutako puntu guztiak batu, eta horixe izango da izangai bakoitzaren azken kalifikazioa. Epaimahaiak Euskaltegiko iragarki-taulan eta Udalaren webgunean jarriko du jendaurrean lehiaketan parte hartu duten izangaien zerrenda, puntuaziorik handienetik txikienera zerrendatuta. Berdinketa izanez gero, berriz, irizpide hauen arabera ebatziko da hurrenkera:

1. Elkarriketan puntuaziorik altuena atera dutenak.
2. Oposizio aldian puntuaziorik handiena lortu dutenak.
3. Lehiaketa aldian puntuaziorik handiena lortu dutenak.
4. Berdinketak jarraituz gero, Epaimahaiak erabakiko du –eta erabakiaren berri emango du bigarren ariketaren emaitzekin batera– zein irizpideren arabera ebatzi hurrenkera.
5. Edonola ere, berdinketak bere hartan jarraitzen badu, zozketa egingo da.

Epaimahaiaren iritziz deialdira aurkeztutako izangaien artean ez badago lanpostua betetzeko gutxieneko baldintzak betetzen dituenik, lanpostua bete gabe aldarrika dezake.

11. Kontratazioak

Bergarako Udal Euskaltegiko lehendakariak txandakako kontratua egingo dio Epaimahaiak proposaturiko izangaiari behin betiko emaitzak argitaratzearekin batera adieraziko zaion egunean. Era berean, adieraziko zaio zer epe duen aurkeztu beharreko agiriak aurkez ditzan. Agiriak ezarritako epean, eta ezinbesteko arrazoiaren batengatik izan ezean, aurkezten ez baditu, edo kontratua sinatzen ez badu, haren jardun guztiak baliorik gabe geratuko dira. Kasu horretan, lehiaketa-oposizioa gainditu eta azken kalifikazioaren hurrenkera ondoren dagoenaren aldeko proposamena egingo du lehendakariak.

Kontratua egin aurretik edo probaldiak irauten duen bitartean, enpresa-medikuaren ikuskapena pasatu beharko du, osasun-egoera ona duela eta lanpostuaren eginkizunak betetzeko gai dela egiaztatzeko.

Probaldiak 2 hilabete iraungo du, eta hautaketa-prozesuaren atal baten izaera izango du. Azken balorazioa "gai/ez-gai" izango da, eta Udal Euskaltegiko iragarki-taulan argitaratuko da.

12. Lan-poltsa

Lanpostua eskuratu ez, baina oposizio-lehiaketa gainditzen duten hautagaiekin euskara-irakasleen lan-poltsa osatuko da, etorkizunean sortzen diren aldi baterako irakasle-premiak betetzeko.

Prozesuan atera duten azken puntuazioaren arabera osatuko da, handienetik txikienera; urtebeteko balioa izango du, eta Bergarako Udal Euskaltegia Fundazio Publikoaren Zuzendaritza batzordeak horrela erabakiko balu, urtez urte luzatuz joan liteke, gehienez ere lau luzapen egin arte.

Oposizio aldiko lehenengo eta bigarren ariketak gaindituta, hirugarrena (euskarako C2 egiaztatzea) gainditzen ez duten izangaiek lan-poltsaren zerrenda osagarria osatuko dute, puntuazio handienetik txikienera, baina beti ere C2 maila egiaztatua dutenen eta egiaztatzetik salbuetsita daudenen ondoren. Horrela, Euskaltegiaren behin-behineko lan-premiei erantzun ahalgo diete.

Kontratu bakoitzerako deitzeko sistema honakoa izango da:

- Euskaltegiak izangaiarekin harremanetan jartzerik lortzen ez badu edota izangaia Euskaltegiaren deia erantzuten ez badiu, lan-poltsan agertzen den hurrengo izangaiari deituko zaio.
- Izangai bati deitu, eta ezetz erantzun edo erantzunik ematen ez badu, zerrendaren azken tokira joango da, baldin eta ezintasuna justifikatzen duen ziurtagiriren bat aurkeztzen ez badu, behintzat.
- Gaixorik dagoela ziurtatzen duen mediku-agiria edo kontratuarekin lanean diharduela ziurtatzen duen agiria aurkeztuz gero, zerrendan dagoen postuan lagako da, baina sendatu edo kontratua amaitu zaiola abisatu arte ez zaio deituko, egoera horretan jarraitzen duela ulertuko baitu Udal Euskaltegiak.

Kontratua sinatu aurretik, Bergarako Udal Euskaltegiak azterketa medikua egin ahal izango die hautagaiei ikusteko gaixo eta lesiorik ez dutela eta lanpostua betetzeko gai direla.

13. Gorabeherak

Epaimahaiak ahalmen osoa izango du sor litezkeen zalantzak argitzeko eta, oinarri hauetan aurreikusten ez diren gorabeheretan, lehiaketa ongi bideratzeko behar diren erabakiak hartzeko.

14. Dokumentazioa itzultzea

Instantziarekin batera aurkeztu den dokumentazioa jasotzeko eskubidea izango dute aurkeztu diren izangaiek, kontratatuko denak eta lan-poltsa osatzen dutenek izan ezik.

Hautaketa-prozesua bukatu, eta 3 hilabeteko epean jasotzen ez den dokumentazioa txikitu eta bota egingo du Udal Euskaltegiak.

15. Prozesuaren argitalpenak

Prozesu honetan argitaratu beharrekoak (onartuen eta baztertuen zerrenda, oposizioaldiko emaitzak...) Bergarako Udal Euskaltegiko ohar-taulan nahiz Udalaren webgunean argitaratuko dira.

Datu pertsonalen babeserako araudiari jarraituz, edozein izangai edo parte hartzailek izango du bere datuak eskuratu, zuzendu edo ezabatzeko eskubidea; horretarako, eskaera aurkeztu beharko du helbide honetara bidalitako idatziaren bitartez: Bergarako Udal Euskaltegia, Barrenkalea, 33, 20570 Bergara.

16. Aurka egitea

Interesatuak, deialdiaren, oinarrien eta deialdiak berak zein Epaimahaiaren jardunak eragin ditzakeen ekintza administratiboen aurka jo dezakete, azaroaren 26ko Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak xedatutako kasu eta moduetan.

Bergaran, 2016ko uztailaren 22an

M^aElena Lete Garcia
Bergarako Udal Euskaltegia Fundazio Publikoaren lehendakaria

ERANSKINA

Ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako erreferentzia markoa

- EEMB, bere politika eta hezkuntza testuingurua
- Markoaren oinarrizko ikuspegia
- Erreferentzia-maila bateratuak
- Hizkuntzaren erabilera eta erabiltzaile edo ikaslea
- Erabiltzaile edo ikaslearen gaitasunak
- Hizkuntzaren ikaskuntza eta irakaskuntza
- Atazak, eta atazek hizkuntzaren irakaskuntzan duten zeregina
- Dibertsifikazio linguistikoa eta curriculuma
- Ebaluazioa

Curriculum eta zehaztapen-maila

- Oinarrizko curriculum
- ECPa. Euskaltegiaren Curriculum Proiektua
- Programazioa

Helduen euskalduntzearen mailak

- Mailak eta azpimailak

Curriculumaren oinarriak

- Gaitasun komunikatiboa eta ekintzara bideratutako ikuspegia
- Ekintza komunikatiboa, ikaskuntzaren abiapuntua eta ardatza

Curriculumaren edukiak

- Gaitasun soziolinguistikoaren garapena
 - o Testuinguruaren ezaugarriak
 - o Gaiak
 - o Kultura-erreferentziak
- Gaitasun testualaren garapena
 - o Testu generoak
 - o Funtzioak
 - o Adierazpide testualak
- Gaitasun linguistikoaren garapena
 - o Adierazpide linguistikoak
- Gaitasun estrategikoaren garapena

- o Komunikazio-estrategiak
- o Ikasprozesuaren estrategiak

Ebaluazioa eta egiaztatze gintza

- Ebaluazio garaiak eta motak
 - o Diagnostikoa, jarraitua eta sumatiboa
 - o Autoebaluazioa, koebaluazioa eta heteroebaluazioa
- Egiaztatze gintza
- Portfolioa

Hizkuntzen irakaskuntzaren didaktika

- Testuinguru psikopedagogikoa hizkuntzen ikas-irakaskuntzan
 - o Konduktismoa
 - o Konstruktibismoa
 - o Ikaskuntzaren teoria soziokulturala
- Hizkuntzen irakaskuntzari buruzko ikuspegi pedagogikoak eta teoria nagusiak
 - o Ikuspegi audiolinguala
 - o Ikuspegi nozional-funtzionala
 - o Atazetan oinarritutako ikuspegia
- Ikuspegi sintetikoak eta analitikoak hizkuntzen ikas-irakaskuntzan
 - o Ikuspegi sintetikoak
 - o Ikuspegi analitikoak
 - o Mugak

Metodologia hizkuntzen irakaskuntzan

- Alderdi interpertsonalak ikas-irakasprozesuetan
 - o Irakas-estiloak
 - o Interakzioa (irakasle-ikasle eta ikasleen artekoa)
- Alderdi intrapertsonalak ikas-irakasprozesuetan
 - o Nortasuna
 - o Ikas-estiloak
 - o Motibazioa eta autonomia
 - o Ikas-estrategiak
- Ikas-baliabideak eta metodoak
 - o Materialen diseinua eta egokitzapena
 - o Langai eta eskuliburuaren azterketa oinarri komunikatibotik

Trebetasunak lantzen hizkuntzen ikas-irakaskuntzan

- Entzumena, irakurmena, mintzamina eta idazmina

Teknologia hizkuntzen ikas-irakaskuntzan

- Aurrez aurreko irakaskuntzatik irakaskuntza birtualera.
- Irakas-diseinuaren oinarriak.

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA FUNDAZIO PUBLIKOA
FUNDACIÓN PÚBLICA EUSKALTEGI MUNICIPAL DE BERGARA

ESKABIDEA / Instancia

Erregistro-zenbakia:
Número de registro:

Lanpostua/plaza: EUSKARA-IRAKASLEA / Profesor de euskera
--

DATU PERTSONALAK / Datos personales

Izen-abizenak: Nombre y apellidos:		
NAN zk.: DNI nº:	Jaioteguna: Fecha de nacimiento:	Telefona: Teléfono:
Helbidea: Dirección:		Helbide elektronikoa: Correo electrónico:
Herria: Localidad:		Posta-kodea: Código postal:

IKASKETAK / Formación

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA:	C2	C1
Perfil lingüístico:		

LAN-ESPERIENTZIA (lanpostuarekin zerikusia duena baino ez)

Experiencia laboral (únicamente la relacionada con el puesto a desempeñar)

Enpresa Enpresa	Kontratuaren iraupena Duración del contrato	Lanpostua Puesto de trabajo

BESTELAKO MERITUAK / Otros méritos

Ikastaroak, mintegiak, diplomak... (lanpostuarekin zerikusia dutenak baino ez)

Cursos, seminarios, diplomas... ((únicamente los relacionados con el puesto a desempeñar))

Eskatzailak deialdiaren oinarrietan azaldutako eskakizun guztiak betetzen dituela adierazten du eta, hortaz, onartua izatea eskatzen. Era berean, adierazten du Bergarako Udal Euskaltegia Fundazio Publikoa

BAIMENTZEN DUELA
EZ DUELA BAIMENTZEN

bere datu pertsonalak beste herri-administrazio batzuei emateko, beti ere eskaera honen bidez eskuratu nahi duen lanpostuaren antzekoetan sor litezkeen aldi baterako langile-beharrei erantzuteko.

SINADURA / Firma

El solicitante declara cumplir todas las condiciones exigidas en las bases, y solicita ser admitido. Igualmente declara que

SÍ NO

AUTORIZA a Bergarako Udal Euskaltegia Fundazio Publikoa para que facilite sus datos personales a otras administraciones públicas que así lo soliciten, para cubrir necesidades de personal no permanente en puestos similares al que opta mediante esta instancia.

OHARRA: Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko

Jakinaren gainean nago galdera-sorta hau betetzerakoan emandako datuak Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko abenduaren 13ko 1999/15 Lege Organikoak eta Titularitate Publikoa duten Izaera Pertsonaleko Datuen Fitxategiei eta Datuen Babeserako Euskal Agentziaren sorrerari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak babesten dituela, Bergarako Udal Euskaltegiaren jabetzako fitxategi batera igaroko direla eta eskabidea burutzeko beharrezkoak diren administrazio prozeduretan aurreikusitakoaren arabera erabiliko direla. Era berean, datuak sartzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta abarrerako Bergarako Udal Euskaltegiaren helbidera jo dezakedala badakit (Barrenkalea, 33, 20570 Bergara, Gipuzkoa).

NOTA: Protección de Datos de Carácter Personal

Me doy por advertido@ legalmente de que los datos personales facilitados se integran en un fichero propiedad de Bergarako Udal Euskaltegia y que se utilizarán únicamente para la tramitación del procedimiento que se insta y que están protegidos por Ley Orgánica 15/99 de 13 de Diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal y ley vasca 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, teniendo los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición que tal normativa reconoce, que podré ejercitar en la siguiente dirección: Bergarako Udal Euskaltegia, Barrenkalea, 33, 20570 Bergara, Gipuzkoa.